

BITKOAN

Vladimir Kopicl



Euskarazko itzulpena: 11itzulpen

bestehitzak **drugebesede**
||| | | ||| | |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union 

Vladimir Kopicl

BITKOAN

1 (Veles - Bitola, 2017ko abuztuaren 5a)

Mendiak, mendiak, mendiak.

Eta horien atzean, beste mendi batzuk.

40 gradutan, airea erabat ikusezina da,

eta gradu guztiak lerro zuzen batean jarrita, bai, 40 gradu leku guztietan,

gu guztion artean banatuta, toki guztietan, denon artean partekatzeke,

guztion artean gure behar-falten arabera, guztiok lan ezari emandako oparia

ia hil gabe egongo balitz bezala, ongi ikusten ez den trantsizioa,

autogestioaren nirvanatik nirvana kapitalistara joaten dena,

erresuma honetan non ke bizi iraunkorrek inbertsioak itsutzen baititu oraindik,

eta goraka biratzen den bitartean sakabanatzen baititu, begiak narrita ez ditzaten,

argi ikusten ez badituzu, esan nahi du ez direla bisualki existitzen:

beharbada, Goldman eta Sachs Markoren kobazuloan daude oraindik,

eta Dow Jonesek flotatzen du Ohrid-eko aintzirako aingira horrek bezala.

Trenak ez daki ezer horren gainean, har bat baino ez baita, Txinatik inportatu berri duten har bat;

metamorfosia egiten saiatzen da, eta tximeleta bihurtzeko erabiltzen du beroa,

batez ere hura besterik gogoratzen ez duten bidaiarientzat.

Badirudi bidaiarien erdia burdinbidearen ume eskarmentudunak direla,

jubilatuek bakarrik ez, gazte indartsuek ere

ozenki egiten dute barre ikuskariak billeteak eskatzen dizkietenean,

geldialdi psikologiko labur batek etenarazten ditu, aringarri bat,

tentsioz betetako komiki batean bezala,

tren-ikuskariak ukabilak eta haserrea erakutsi izan balitu bezala, baina, horren orde, guztiek barreari ekiten diote.

Nolabaiteko senitartekoak izango balira bezala, debaldeko bidaia bat eske,
komunitate txiki honetan, non guztiek dioten baino hobeto ezagutzen duten elkar,
zaintze sozialista ahalguztidunaren arima hilak ezagutzen dituen apaiza.

Ez dut jende guztia ezagutzen eta inor ez bereziki, eta bakarrik dakit
nire eskuinaldean eserita dagoen emakume oso errespetagarriaren
kurbei jarraitzen; nire begirada zaintzailearen eraginpean dago,
mutil gazte batean ondoan gustura dago eserita, eta gaztea
lotan dago, aho zabalik, gosari oparoa hartu ondoren
paradisurako bidean balego bezala, beharbada garagardo batzuk ere edan ditu.
Eta emakumea handi samarra da hor, bere belaunaren gaineko inguru horretan,
non emakumeek beren itxurei arreta gutxiago jartzen dieten, atsegina izateko nahia
bertan behera utziz,
baina emakumea zoragarria da ehunkako kilometroko tren-bidaia horretan zehar;
naturak bidaia honetarako egokia den giza substantzia sentSORIALA eskaintzen digu:
bular eder horiek, oraindik arnasa hartzen ikasten ariko balira bezala;
haren sudur fina, begiak eta irribarrea, oraindik txikiak diren girgiloak.

Bai, emakumeak badu berotasun puntu bat, nire begiek hala diote,
gorputzean, baditu akats txikiak, baina orekatuta daude, haren gorputz garbia
moztu gabeko diamante bat bezalakoa da, filigranaren herrialdean;
distira natural eta lotsatia du ezpainak hazten diren zati horretan,
edo izerdi organikoak bekokia nahigabe bustitzen duen lekuan;
oporretan dagoen hegazkin-laguntzailearen mezu baldar txikiak,
edo harreman-zuzendari batek emakumearen aitatzaren bulegotik bidaltzen dituenak,
edo Bitolarantz doan iloba eder baten osaba mamu batenak;
inork ez daki zehazki nora joango den, ezta zertarako ere, baina zalantzarik gabeko begirada
nabari zaio,

ez dago hori ezkuta dezakeen antzeratze mikroskopikorik, horretan ezin dio iruzur egin behatzaile kanpotar horri;

dagoeneko Bitolako geltokian jaisteko prest dago, oin biak

–benetako profesionala baita– taxi bakarrera eramaten ditu herrestan,

gero atea xalotasunez itxi, eta badoa, ezagutzen ez duen zalea hantxe utzita.

Tren-bidaiaren bukaera tristea, baina, apika, beste zerbaiten hasiera alaia.

Hona nator berriz, nire hirira, eta “Hementxe gaude, nire gai maitea” esan ote beharko nuke?

Ziurrenik, oraindik ere, zenbait eskribau usteldu dauzkazu,

bertso-lerroak budu-panpinak izango balira bezala zizelkatzen dituzten horiek:

hemen mugitu eta han zizelkatu, alaitasunez betetako ekintza edonon!

Zure mendeek, Andre hori, nire adina osatzen dute, edo ia-ia,

Beraz, gara dadila gurea adinaren eta garaien arabera,

eta ez Heraklioni gertatu zitzaion bezala, behin babestu baitzenuen eta gero bazterrean utzi,

dena zurrupatuta eta hautsetan sakabanatuta, Lurraren diruaren zaintzarik gabe.

Lurrak badaki zer behar dugun, baina ez dio informazio hori mahatsei igortzen.

Mahatsek ere badakite, baina ez diote inori esaten, beti entzuten baitute irratia eta telebista,

baita iragarpena asmatu ere

eguraldi eta garai kaskarrak iritsi eta uztak suntsitu baino lehen.

Mertxikek ere badakite zer den egia, nahiz eta isilik egon, erdi janda,

eta, egoerak ez baditu erabat irensten, muinean bertan sufritzen dute.

Hori ondo dago, isilik egon daitezela; nik ere ahoa itxiko dut,

hitzak urdailean gordeta, horiek ere erdi janda.

2 (Bitola, 2017ko abuztuaren 6a)

Harri bat aintzira batean botatzen baduzu, ekintza horrek ez du harria gogaituko.

Zenbat eta hegoalderago joan, orduan eta behar gutxiago gure burua aurkezteko.

Ibilbidean barna zabiltzala, zure kezkek desagertu egiten dira;

inuzenteak izateko joaera dugu hanka eta aurpegi guztiak lainoan barrena ikusten ditugunean.

Bai, horietako bat oso inuzentea da, ez esan haren helbidea;

zure ondoko mahaian, bi laminak atsedean hartzen ari dira.

Horietako bat oso ederra da, sudur fin samarra du;

guztiok aginduak eman nahi genizkioke ondo zehaztu gabe dagoen arropaz jantzita.

Biluzik, ezjakintasunaren eta tristezia inuzentearen errepidean gabilta;

nola hautematen dugu hori, eta noiz arte hartu behar genuke hor atsedean?

Manaki-ren etxearen aurrean, non urrats guztiek topo egin eta aurrera jarraitzen duten,

agerian geratzen zaigu denborak urkamendira eraman gaitzakeela.

Ahaztu orain gorputz horietaz, oraindik ez baitugu onena ikusi,

eta beste batzuk etortzen badira hemen daudenak ordezkatzera, utz diezaiegun azken urratsa egiten.

3 (Bitola, 2017ko abuztuaren 6a, gauerdia baino lehentxeago)

Kafetegietan eta kaleetan barrena, aulkiek beren hankak dituzte, eta horietan esertzen direnek beste hanka batzuei begiratzen diete, hanka horiek ere erreguka eskatzen dute begira diezaieten eta uki ditzaten, liburu zahar horiek balira bezala;

baina, liburu berri hauekin batera, amu gisa erabiltzen dira besterik ez.

Eta beste lekuetako liburu-dendak liburutegiak dira hemen, biltzar-ehun batez eginak; minigona hauek idazteko inspirazioa ematen diete irakurleei, Sexto Propertziok bezala, eta horietako batzuek gustura jasango lukete estualdi are larriago bat.

4 (Bitola, 2017ko abuztuaren 8a)

Hasierako fereka limurtzaile handi horren ondoren, euriak limurtu du hiria.

Ez zen euri bortitza, kaleak zorrotz ekortzeko modukoa;
nekatua eta iluna zen, hodei motela, Bazar-retik etorria,
kontsularen auzotik eta balizko meridiano guztietatik etorria,
alde egin nahi ez duen patina jakin batez loditua.

Hemengo zeruertzean ez dago kaiorik. Ez dago txoririk zeruertzean.

Balkanetatik datorren keak motel inbaditzen du dena,
iluntzearekin batzen diren ñabardura goibel horien aurrerapen iluna,
nire denbora urtu zuen kafe huts hori baino lodiagoak diren tonalitateak,
jendez gainezka dagoen bistrot izugarri handi horretan,
Epinal-en parean, eroso.

Hemen ez dago zertan ikaraturik, guztiok gabiltza ibilbidearen herrialdean
duela gutxi zelaietan ibili izan bagina bezala, edo... ixo, gudu-zelai batean,
Bizantzioko oinordeko guztiak, iritsi berri diren godo gutxi batzuk,
samariar postmodernoak, eta britainiar buru-argiak samarrak,
inguruan barrena Zikladeetako gizon batek jarraitzen dien bitartean, Iliriatar harro batek,
zeina neska mairu baten eta kolore biziko veneziar batena bikotekidea baita,
eta Ohrid uhartetik atera berri baita “Ferragosto”ko izpirituz hornitua.

A, gure itxaropen guztiak zerurantz bideratuta daude,
nahiz eta zeruak gure astelehena suntsitzeko mehatxu egin,
eta bere hazi maltzurak planifikatutako hirian zehar hedatu,
Bitolako filigrana-ilargiaren milaka zaleei jazarri bitartean
bere purgatorioaren urdailera sarrarazi arte, jazz leunak eta zabor-popak lagunduta.

Bai, hori izango da gure biltokia, handik garrasi egingo dugu oligarka azal dadila
euri-sasoiaaren ondoren eguzkia ekartzeagatik ezaguna baita,
hark asmatuko du negozio-proiektua, depresiotik modu erotikoenean ateratzeko,
borrokaren bitartez lortu nahi duguna ezagut dezagun, nahiz eta jatorriz Strumica-koa ez izan,
lehenengo hodeiek zerutik alde egin eta azken garai hauek isilpean geratu ondoren.

Isiltasuna da nagusi gauerditik aurrera, egunsentia baino lehentxeago,

“RockKafana” ere isilik geratu zen; klub hori hain da zaratatsua, non poeta irlandar batek

alokatutako gela aldatzea erabaki baitzuen, orain bertso hauek idazten ari naizen gelaren ondokora,
hain zuzen,

klubetik urruti, igogailurik gabeko laugarren solairu hau hartu zuen bizitoki.

Eta ni hemen geratu nintzen, anabasa honetan, zeruarekin zerikusirik ez duen aztoramen alfer eta triste
honetan,

Oinaztarriak idazteari ekin zion eta jarraitu egin nion,

beraz, ezin dugu inoiz irabazi entzuleek abestia zuzentzen badute.

5 (Bitola, 2017ko abuztuaren 6a)

Gaur, Poeta ikustera eraman naute.

“Gaur” hori atzo bihurtu da, elkarrekin denbora luzea eman baikenuen.

Ez du ezer argitaratzen. Ozenki irakurtzen du, besterik ez.

Bai, bere poemak irakurtzen ditu, besterik ez. Ozenki, ozen samar,
bere poesia osoa sentitu egiten du.

Eta gero horren gainean hitz egiten du: "Sendoa da. Indar handikoa!"

Gertakari horrek bi ordu baino gehiago iraun zuen, museoaren gainean dagoen gelan,
bere gela pribatuan, pertsonalenean,
gela ezezaguna eta duina, erdi hutsik,
baina hor eskegita dauden margolanetako bat erabat byrondarra da,
beharbada, Byron gaztea dago lan horretan, ezker aldeko bazterrean eskuinaldeko soslai erdia erakutsiz,
eta justu haren parean, ezker aldeko soslai erdi hori, shelleytarrak dira apika, eta Emakumea.

Bai, hori da: betiereko Emakumea. Eta ederki margotuta daude guztiak,
lehenengo geruzan daude, eta beste guztia txar mortala da.

Hondoa *kitcha* da, batere perspektibarik gabekoa.

Horixe geratzen da artearekin; hari eustea zaila da.

Hala ere, poetak ez zuen amore emango: irakurtzeari ekin eta gero, betiko jarraituko zuen!

Edo bere irakurraldi baten grabaketa jarriko zigun,
jendaurrean, denda-boutique berriztatu batean dagoen museoan,
eta adi!, behin, lehendakariaren bulegoan irakurtzera ere gonbidatu zuten.

Eta haren poemak? Ondo samar hasten ditu, bere modu anarkistan,
"Poeta hiltzaileak" lanean bezala (izenburuak berak dena esaten du),
eta beste guztia, dio, estiloari dagokionez, izenburua bezain ona da.

Poema ona; zergatik ez naiz oroitzen orain?

Beste poema baten gauza batzuez oroitzen naiz,
lehenengoaren giroa du, neurri batean, baina ezberdina da
ñabardurengatik, eta bi estilotan banatuta dago.

Mazedonierazko izenburua "Skarani planini" da,
baina ez da guk uste genuena¹:
"skarani" hitzak "desadostasunean" esan nahi du, beraz, bi mendiak desadostasunean daude,
ez du zerikusirik sexuarekin edo erotismoarekin, baina badu nolabaiteko tentsioa;
bai, etengabe ageri da, eta ezkutatuko esanahiren bat darama,
argi dago leku batean okertuta edo zapuztuta dagoela
itxaropenari dei egiten baitio, eta hori bertso-lerroetan Gabriel izena
aipatzea baino eztabaidagarriagoa da. Baina Erroiak, beti, badu aukera hobe bat.

Bi mendi hauek borrokan hasten dira, eta hortxe dago arazoa,
fisikoa da, baina metafisikoa ere bai, eta hori nahasgarri bihurtzen da,
ika-mika horrek luze iraun baitezake piztia horiengandik ihesi doala,
eta Poetak guztiak ditu gogoan, ozenik eta sumindu samar,
baina merezi duten begirunea emanez: azeri, otso eta katamotz horiei guztiei,
baita animalia txikiagoei ere; gure antza dute nolabait;
Poetak ez luke egia hori aipatuko, baina ni hori esatera ausartzen naiz.
Hemen ez du argi hitz egiten, lerro pare batean zentzua galtzen baitu, maitea,
edo esan dezagun ez dudala esanahia ulertu, baina
poemaren iturrira itzultzen da,
eta estasian bukatzen du, eskua zerurantz altxatuta.

1 "skarani" hitzak "izorratuta", "tratu txarrak jaso dituen" edo "triste" esan nahi du serbieraz, poemaren jatorrizko hizkuntzan;

Nola bukatu zuen emanaldia? Ez daukat ideiarik nik neuk,
poema horretatik alde egin bainuen, beste piztia horiek lagunduta
menditik alde egiten ari zirela, alegia, beren oihanetatik,
baita beste mendi horretan dauden oihanetatik ere.

Egun horretan, animalia asko zeuden, asko gure inguruan.

Hor ere hunkitu ninduten. Nora joaten dira korrika
piztia horiek guztiak, aginpidearen pean, Poetaren esku astunaren mendean, ibiltzeko ohiturarik gabe?

Hura guztion gaintik baitago, justizia aginduz
guk hari entzun ala ez, beti bezala, ala ikusezina denari begiratu behar genioke?

Orain, eserita eta erdi esne nagoela nire hiri-zokoan,
idatzirik gabeko ordenagailu-pantailaren oihan lasaiaren aurrean,
eta nire begi fidagarriak letrez dirdiraka eta tinko begiratzten ari direla,
eta animalia horiek guztiak, egon al daitezke orain zure besarkada goxoan?
Izan al liteke atzapar etengabeko horien artean dirdiraka ari den argiatatik,
zeina udaldi horren burko epel eta loti horren gainen kokatuta dagoen,
zeinak otsailaren 29ak bezala lotzen eta banatzen gaituen,
muxuek ezpainak banatu eta iluntasunak ibaiertza estaltzen duen bezala.

6 (Bitola, uztailaren 23, 2017)

Errepideak, Peter eta Charlierekin

Eguzkiak belatzaren bihotza lehortzen du. Baina, busti ondoren, arrainek ez dute katarrorik izaten.

Gure begiradak ez du aire bero eta distiratsu hori zalantzan jartzen. Pasaia honetan izozmendiak, behintzat,

ez daude arriskuan.

Sudurrak eta belarriak izarrek bakarrik dakiten zerbait susmatzen dute;

egunean zehar, izarrek ez dira inoiz azaltzen. Horiek gaueko hegaldiak eta ihesaldiak hartzen dituzte.

Mahaiak lau hanka baino ez ditu, eta horren inguruan hiru gonbidatu ditugu,

ipar Balkanetako bi tipo, eta Seattle-ko Musa bat.

Emakumeak eta Lehenengo tipoak mastika² pixka bat zerbitzatu zuten, eta Bigarren tipoak, argidun edari bat.

Eta, bakoitzarentzat, edalontzi bat ur destilatzen ari da, oilar polarraren odolarekin egiten den bezala.

Esne-hazia edalontzi batean dastatu nahi lukete; horri buruzko zerbait irakurri dute.

Lehenengo tipoak amesten du hatzak beste norbaiten zorroan sartzearekin; diru pila bat lapurtuko luke, eta, gero, desagertuko litzateke.

Bigarrenak erabaki du hori egiteko denbora pixka bat beharko dutela harrapa ez ditzaten;

edozein moduz, lasai, lan erraza da hori, eta egunsentira arte jarraituko dute.

Bitola osoan zehar aurkituko duzu gazta mota izugarri bat, azala parpaila bezain fina duena.

Hemen, guztiek ase behar dute, nahiz asetzeko eskatu ez.

Mozkortuta dagoen gizon bat abesten hasten denean bezala, beraz, ez du zertan lotsatu:

soka koipetsua arrosa-petaloz estali behar genuke.

² Mastika almazigaz (pinu- edo zedro-zaporea edo duen erretxina) ontzen den likorea da. Anis-zaporeko edari gogorra, hotza edatekoa.

Eta Emakumeak Piramoz eta Tisbez hitz egingo luke. Eta, bizitzan zer egin behar luke, zer bihurtu?

Zuhaitz bat ere partekatuko luke, jendearekin konektatzen diren adarrak.

Bai, hori bideragarria da erabat, dio Bigarrenak, horrela, Emakumearen beste hiru 'ni'

pertsonaia sortzen dira;

Lehenengo tipoa labanaren inguruan hegan ari diren euliak entzuten ari da, olatuak inguratzen ari den

hostoen abesbatza.